



*Bizkaiko Indarkeria
Matxistaren Behatokia
Observatorio de la **Violencia**
Machista en Bizkaia*

TXOSTENA

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
MATXISTAKO EGOERETAN**

EMANDAKO LAGUNTZAREN ZIFRAK

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

POLIZIAREN ARLOA

2023



2. kapitulua.

POLIZIA-EREMUA

Alderdi terminologikoak

Kapitulu honetan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak biktimizazioen estatistikan emandako datuak aurkezten dira. Estatistika horretan, kontuan hartzen dira *“pertsonen legez kontrako ekintza penal bat jasan duten aldi guztiak, eta, horren ondorioz, Ertzaintzak erregistratu dituenak, herritarren salaketa baten bidez edo norberaren ekimenez irekitako polizia-eginbideen bidez”*.

Dokumentu osoan **“biktimizazio”** terminoa aipatzen da, haren edukia “salaketa” terminoa baino zabalagoa baita; izan ere, Ertzaintzak zuzenean ezagutu dituen gertaerak ere hartzen ditu barnean, salaketa baten beharrik gabe. Hala, gizarte-arloko programei buruzko aurreko kapitulu ez bezala (“emakume kopuruari” buruzko informazioa ematen da kapitulu horretan), azterketa-unitate nagusia “indarkeria-aldiak edo -gertaerak” dira, nahiz eta kasu batzuetan biktimizazioetan inplikaturako pertsonen kopuruari buruzko informazioa ere hartzen den barnean.

Jarraian aurkeztuko ditugun datuak ematen dituen Sailak erabiltzen dituen kontzeptuei eta terminologiaren arabera, kapitulu honetan **“emakumeen aurkako indarkeria”** aipatzen denean, hiru mota hartzen dira barnean, indarkeria hori erabiltzen duen pertsonarekiko harremana kontuan hartuta:

- 1. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria.**
- 2. Familia barruko (genero-)indarkeria:** gizonek emakumeen aurka familia barruan eragindako indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)¹.
- 3. Gizonek emakumeen aurka erabilitako sexu-indarkeria,** aurreko eremuetatik kanpo.

¹ 2010ean, garai hartan Herrizaingo Saila zenak hobekuntzak egin zituen datuen ustiapenean, eta familia barruko indarkeriaren zenbaketa egokitu zuen, erasotzailearen sexua kontuan hartuta. Horrela, erasotzailea gizonezkoa bada baino ez da hartzen familia barruko indarkeriatzat (lehen kasu guztiak hartzen ziren barnean). Era berean, irizpide horrekin 2009ko datuak zuzendu ditu, eta, horregatik, txosten honetan urte horri dagozkion datuak aipatzen direnean, aldeak ikus daitezke 2009. urteari dagokion txostenean agertzen direnekin alderatuta; izan ere, urte hartako txostenak Sailak emandako aurreko ustiapenaren ondoriozko zifrak jasotzen zituen.



2.1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BIZKAIAN

2.1.1. Lurraldeko datuak

2023an, Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriaren (EAI) ondoriozko **3.505 biktimizazio** erregistratu ditu Bizkaian, hau da, EAE osoan erregistratutakoen % 53,3.

Bizkaiko datuak adierazten du **hamar mila emakumeko 58,7ko biktimizazio-tasa** dagoela.

Gertaera horien biktima diren emakumeak 2.758 dira, eta datu hori biktimizazioena baino txikiagoa da; izan ere, baliteke biktima batek indarkeria-gertaera bat baino gehiago jasan izana. Emakume biktimen tasa 46,2koa da hamar mila emakumeko.

2023an, hildako bat erregistratu da, eta familia barruko indarkeriagatik izan da (Bilbo).


Aurreko urtearekin alderatuta, biktimizazioen bolumena % 9,7 handitu da (3.194 gertaera 2022an). Bilakaerari dagokionez, aztertutako aldi osoan, **2023ko datua da orain arte erregistratutako daturik altuena.**

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, denboran zehar adierazle horren ezaugarria da **goranzko ibilbidea duela, eten gutxirekin.** Igoera progresiboa da lehen urteetan (2003-2008), eta 2009an beherakada txiki bat ikusten da, Sailak aplikatzen dituen neurketa-parametroen aldaketaren ondorioz, aurreko atalean azaldu dugun bezala. 2010. urteari dagokionez, biktimizazio-kopuruak behera egin du benetan, eta hiru indarkeria motei eragiten die (bikotekidea / bikotekide ohia, familia barrukoa eta sexu-indarkeria). Orduz geroztik, beherakada-une urriak ez dira nabaritzen eguneroko erregistroetan; izan ere, 2011tik, egunean zortzi gertakari inguru izan dira, eta 2003an, berriz, bost ziren. 2023ko zifrei dagokienez, **egunean ia hamar biktimizazio** erakusten ditu adierazleak.



2003ko eta 2023ko aldia mugatzen duten bi urteetako kopuruak alderatuta, azken horretan biktimizazioek **1.835 gertakari** gehiago izan dituzte.

Aztertutako 21 urteetan, Ertzaintzak emakumeen aurkako **56.251** indarkeria-gertakari erregistratu ditu Bizkaian.



2.1 taula. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioak. BLH. 2004-2023

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009 ²	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Kop.	1.670	1.880	2.210	2.368	2.568	2.723	2.652	2.366	2.747	2.758	2.801	2.894	2.776	2.581	2.768	2.932	2.989	2.961	2.908	3.194	3.505
Aldak. % Urte art.	--	12,6	17,6	7,1	8,4	6,0	-2,6	-10,8	16,1	0,4	1,6	3,3	-4,1	-7,0	7,2	5,9	1,9	-0,9	-1,8	9,8	9,7
Aldak. % 03	--	12,6	32,3	41,8	53,8	63,1	58,8	41,7	64,5	65,1	67,7	73,3	66,2	54,6	65,7	75,6	79,0	77,3	74,1	91,3	109,9

Kop.: Biktimizazio kopurua / Aldak. Urte art.: Urte arteko aldakuntza / Aldak. 03: 2003arekiko aldakuntza


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

² 2010ean, neurketa-parametroak aldatu ziren, eta aurreko urteko (2009) datuak ere aldatu ziren. Aldaketak "familia barruko indarkeria" kategorian du eragina; momentu horretatik aurrera ez dira kontuan hartzen pertsona erasotzailea emakumea den kasua.

Indarkeria mota

Segurtasun Sailaren sailkapenaren arabera, EAltzat hartzen diren hiru indarkeria motei dagokienez, ehunekotan, bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeria emakumeen aurkako indarkeria-gertakarien % 73,2 da; familia barruko indarkeria, % 17,5; eta sexu-askatasunaren aurkako delituak, aurten, % 9,3 dira Ertzaintzaren erregistroetan.


2.2 grafikoa. Emakumeen biktimizazioak, emakumeen aurkako indarkeria dela eta, indarkeria-motaren arabera. BLH. 2023



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Aurreko urtearekin alderatuta, 2023an gora egin dute hiru indarkeria motekin lotutako biktimizazioak: % 9,1 bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeriak; % 7,9 familia barrukoak; eta % 18,6 sexu-askatasunaren aurkako delituek.

2.3 grafikoa. Emakumeen biktimizazioak, emakumeen aurkako indarkeria dela eta, indarkeria-motaren arabera. BLH. 2022-2023




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Emakumezko biktimen kopuruan izan diren aldakuntzak honako hauek izan dira: % 9,3ko igoera bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkerian (aurreko urtean baino 164 emakume gehiago); % 4,3, familia barruko indarkeriari dagokionean (21 emakume gehiago); eta % 18,1, sexu-indarkerian (49 emakume gehiago).

2.1.2. Udalei dagozkien datuak

Ohiko ereduari jarraituz, EAlren ondoriozko biktimizazioen erregistroa **modu orokorrean** dago islatuta Lurralde osoan. 2023an, biktimizazioak erregistratu dira **Bizkaiko 112 udalerrietatik 95en**. Bizkaiko emakumeen biztanleriaren % 99,5 hartzen dute udalerri horiek.

Udalerri gehienak (% 57,9) biktimizazio-erregistro txikiena duten tartean daude: urtean 10 gertakari baino gutxiago gertatzen dira. Oro har, 1.000 biztanletik beherako udalerriak dira, Eta Bizkaiko emakumeen biztanleriaren % 7,5 eta biktimizazioen % 5,2 biltzen dituzte.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.


Kontrako muturrean, **17 udalerrik** (iaz baino bat gehiago) dute **gertakari-dentsitate handiena**. 40 gertakariarekin edo gehiagorekin, Bizkaian erregistratzen diren biktimizazio gehienak biltzen dituzte: 2023an, hamar biktimizaziotik zortzi (% 80,5) udalerri multzo horretan gertatu ziren, eta hamar udalerri handiak hartzen ditu barnean (25.000 biztanletik gorakoak), beste udalerri hauez gain: Abanto-Zierbena, Amorebieta-Etxano, ****Bermeo**, ***Erandio**, Ermua, *****Mungia** eta Trapagaran.

* Ertzain-etxea duen udalerria.


** Ertzaintzaren Herritarren Arretarako Bulegoa (HAB) duen udalerria.



2.1. irudia. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioak.
BLH. 2023



2.2. irudia. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazio-tasa
(Tasa, 10.000 emakumeko). BLH. 2023



Iturria eta egilea: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritzia.



25.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak

Hamar biktimizaziotik ia zazpi (% 68,7) Bizkaiko hamar udalerri handietan biltzen dira (25.000 biztanletik gorako udalerriak), eta kopuru hori bat dator udalerri horiek Lurraldean duten biztanleria-tamainarekin (% 67,7).

Hala ere, beste urte batzuetan bezala, udalerri horiek askotariko errealitateak dituzte maila partikularrean, eta errealitate horiek agerian uzten dute biztanleria-bolumena ez dela, ikuspegi horretatik, biktimizazioen banaketan eragiten duen faktore bakarra. Urtez urte ikusten da kasu guztietan ez direla proportzionalak udalerri batean erregistratutako biztanleriaren eta biktimizazioen ehunekoak.

Era berean, biktimizazioen kopurua eta emakumeen biztanleriaren bolumena (tasa, 10.000 emakumeko) erlazionatzetik ateratzen den adierazleak alde nabarmenak erakusten ditu haien artean, eta ez da harritzekoa udalerri batzuetako indizeak beste batzuetakoak halako bi edo gehiago izatea.

Gogoratu behar da zerbitzuen jardueratik datozen datu horiek Ertzaintzaren ezagutzara iristen diren gertaerei buruzkoak direla, hau da, bide horren bidez *arreta-sisteman ikusgai egiten diren kasuei buruzkoak dira*, eta ezin direla hartu nukleo batean EAlaren intentsitatea handiagoa edo txikiagoa izatearen adierazle gisa.

2.2 taula. EAlren ondoriozko emakumeen biktimizazioei buruzko adierazle nagusiak, 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan. BLH. 2023

Udalerria	Emakumeen biztanleria	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen tasa
Barakaldo	52.204	8,7	394	11,2	75,5
Basauri	20.854	3,5	121	3,5	58,0
Bilbo	182.105	30,5	996	28,4	54,7
Durango	15.251	2,6	70	2,0	45,9
Galdakao	14.918	2,5	77	2,2	51,6
Getxo	40.502	6,8	169	4,8	41,7
Leioa	16.634	2,8	79	2,3	47,5
Portugalete	23.320	3,9	161	4,6	69,0
Santurtzi	23.983	4,0	194	5,5	80,9
Sestao	14.421	2,4	148	4,2	102,6
Guztira < 25.000 bizt.	404.192	67,7	2.409	68,7	59,6
BLHan, guztira	596.769	-	3.505	-	58,7

Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzeko da

Iturria: Guk egina, EINK eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta.



Beste udalerri batzuk

25.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko beste udalerri batzuek ere gainditzen dute batez besteko tasa³, eta biktimizazioen bolumen nabarmena dute.

Ohikoa den bezala, talde horretan dago ***Erandio** (101 biktimizazio; 79,9ko tasa). Aurten **beste sei udalerri** ere badaude:

- Abanto-Zierbena (55 biktimizazio; 116,3ko tasa)
- Amorebieta-Etxano (46 biktimizazio; 46,0ko tasa)
- Bermeo** (64 biktimizazio; 74,5eko tasa)
- Ermua (55 biktimizazio; 69,9ko tasa)
- Mungia** (48 biktimizazio; 52,2ko tasa)
- Trapagaran (43 biktimizazio; 70,4ko tasa)

* Ertzain-etxea duen udalerria.

** Ertzaintzaren Herritarren Arretarako Bulegoa (HAB) duen udalerria.

³ Tasak emakumeen biztanleria eta gertatutako biktimizazio kopurua lotzen ditu, 10.000 emakumeko oinarria hartuta. Beraz, biztanlegune txikietako adierazleak balio altuak izatea kalkuluaren beraren ondorioa da, eta ez indarkeria-gertakari ugari erregistratu izanaren ondorioa. Hori dela eta, efektu hori hain handia izan ez dadin, 40 gertaera edo gehiagoko biktimizazio-kopurua duten udalerriak baino ez dira hartu kontuan zerrendan.

2.2. BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA

2.2.1. Lurraldeko datuak


A. Biktimizazioak eta biktimak

2023an, bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriak eragindako **2.567 biktimizazio** erregistratu dira Bizkaian, hau da, **1.934 emakume biktima**.

Aurreko urtearen aldean, kopuruak % 9,1 eta % 9,3 **handitu dira**, hurrenez hurren.

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria kasuak direnez emakumeen aurkako indarkerian erregistratutako kasu gehienak, bilakaera-grafikoaren profila aurreko atalean guztizko EAlari buruz jasotakoaren oso antzeko da.

2003az geroztik, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioen mugimenduak **etengabeko igoerak** izan ditu urtetik urtera, batez ere Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa onartu zenetik. Hurrengo urteetan, goranzko joera oso gutxitan eten da, eta, **ohikoa izan da urtetik urtera zifra horiek maximo berriak markatzen joatea**. Hori da 2023. urteari dagokion kasua; izan ere, aztertutako aldiko **zifrarik altuena** erregistratu da, hasierako urteko zifraren halako bi baino zertxobait gehiago erregistratu delarik (% 113ko igoera).



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Eguneroko erregistroari dagokionez ere ikusten da hazkundera: aldi horretan indarkeria mota horren **eguneroko erregistroa bikoiztu egin da**, 2003an hiru gertaera baino zerbait gehiago izatetik azken urtean **eguneko zazpi biktimizazio** izatera igaro baita.

Aztertutako 21 urteetan, bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatiko biktimizazioak 41.346 izan dira Bizkaian.


Biktimizazio-tasa, 10.000 emakumeko

Biktimizazioen bilakaera ikusteko beste modu bat 10.000 emakumeko tasa da.

2023an, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak eragindako biktimizazioen tasa **43,0 biktimizaziokoa izan da 10.000 emakumeko**. Aztertutako aldiaren hasierarekin alderatuz gero, tasa hori 22 puntu baino gehiago handitu da.

Adierazlearen bilakaerari begiratuta, hazkunderaren erritmoa ikus daiteke, hau da, azkarragoa lehen urteetan.

2.6 grafikoa. Bikote/bikote ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko biktimizazio tasa. BLH. 2003/2023



Oharra: 10.000 emakumeko tasa, biktimizazio kopuruaren eta emakumeen urteko biztanleriaren arabera kalkulatuta. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Delitu motak


Ertzaintzaren egitateen kalifikazioaren arabera, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko emakumeen biktimizazio gehienak honako delitu mota hauengatik dira, beste ekitaldi batzuen antzera:

- Tortura eta osotasunaren aurkakoa: 1.117 biktimizazio (guztizkoaren % 43,5); gehienbat **familia-eremuko ohiko tratu txarren kategorian (1.096 biktimizazio)**.
- Lesioak: 637 biktimizazio (guztizkoaren % 24,8)
- Justizia Administrazioaren aurkakoak: 519 biktimizazio (guztizkoaren % 20,2). Barnean hartzen du **segurtasun-neurriak, kautela-neurriak, kondena-neurriak** eta abar urratzea.

Jazarpen delitua 2015ean sartu zen Zigor Kodean⁴, askatasunaren aurkako delituen barruan, eta 2023an delitu horri lotutako 40 biktimizazio erregistratu dira.

Mota horretako gertakarien identifikazioak nabarmen **egin zuen gora** delitu mota berri gisa sartu eta lehen lau urteetan, eta behera egin zuen hurrengo urteetan. 2022an gora egin zuen, eta hazkundeak jarraitu egin du 2023an, orain arteko gehienezko kopurura iritsi delarik.

2.7 grafikoa. Bikote/bikote ohiak eragindako indarkeria. Sexu-jazarpeneren biktimizazioak. BLH. 2015-2023




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

⁴ Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez sartu zen Zigor Kodean.

Lesioen larritasuna

2023an ez da hildakorik erregistratu Bizkaian bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriaren ondorioz.

2004az geroztik, 25 emakume hil dituzte Bizkaian bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondorioz.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Eskura dauden datuen arabera, lesioen larritasunaren arabera biktimizazioen banaketak antzeko datuak ditu urtetik urtera. 2023an 14 aldiz izan zen biktima **larri zauritua**.

2.3 taula. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak lesioaren larritasunaren arabera. BLH. 2004/2023


LESIOAREN LARRITASUNA	2004 Kop. (%)	2008 Kop. (%)	2012 Kop. (%)	2016 Kop. (%)	2020 Kop. (%)	2023 Kop. (%)
Hila	4 (0,3)	1 (0,1)	0 (-)	1 (0,1)	1 (0,05)	0 (-)
Larri zauritua	4 (0,3)	12 (0,6)	9 (0,4)	6 (0,3)	12 (0,6)	14 (0,5)
Arin zauritua	429 (33,0)	566 (29,0)	574 (27,2)	512 (26,2)	515 (24,1)	627 (24,4)
Onik	769 (59,2)	1.261 (64,6)	1.383 (65,5)	1.308 (67,0)	1.279 (59,9)	1.445 (56,3)
<i>Ez dakigu</i>	93 (7,2)	112 (5,7)	144 (6,8)	126 (6,5)	328 (15,4)	481 (18,7)
GUZTIRA	1.299 (100,0)	1.952 (100,0)	2.110 (100,0)	1.953 (100,0)	2.135 (100,0)	2.567 (100,0)

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Erasotzailearekiko harremana

Erregistratutako kasuen erdietan baino zertxobait gehiagotan (% 52) erasotzailea jada **ez da biktimaren egungo bikotekidea**.

Hala, aurreko urteetako joerari eutsi zaio; izan ere, denbora-tarte horretan, banaketen testuinguruan gertatutako biktimizazioen ehunekoa % 50etik gorakoa izan da ia urtero (grafikoan berdez daude irudikatuta).




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Adina

Ohiko arauaren ildotik, 2023an ere adin-talde guztietako biktimak erregistratu dira, eta bi heren inguruk (**% 62,7**) ez dituzte **40 urte baino gehiago**:

- Adin horretako emakumeak **1.212** dira.
- Aurreko urteetan bezala, **31-40 urte bitarteko tartea da ugariena** (biktimen % 35). Aurreko eta ondorengo tarte bakoitzak laurdena hartzen du (% 23, 21-30 urte bitartekoak; eta % 25, 41-50 urte bitartekoak).
- **30 adingabe** zenbatu dira (37, 2022an): 14 eta 17 urte bitarteko 29 nerabe, eta 14 urte baino gutxiagoko bat.




Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriak urtean izan duen gorakada 31 urtetik aurrera ikus daiteke, batez ere, 64 urtera arte.

Aurten, **31-40 urte** arteko tartea **gehieneko tasara** iritsi da (adinaren arabeko tasa espezifikoa), **10.000 emakumeko 100 kasutik gorako balioekin**.

Adinaren arabeko tasa espezifikoa

Adin-tarte bakoitzeko biktima-kopuruaren eta adin horietako biztanleria-bolumenaren arteko erlazioak erakusten du Ertzaintzak ezagutzen dituen kasu kopuruak areagotu egiten direla 18 urtetik aurrera, eta behera egiten dutela 40 urtetik aurrera.




Lehen adierazi den bezala, aurkeztutako datuek ez dute islatzen indarkeria mota hori jasaten duten emakumeen profil orokorra, baizik eta *aldi horretan erakundeek laguntza jaso dutenena* (kasu honetan, Ertzaintzaren polizia-zerbitzuena), babesteko eta laguntzeko neurriak aktibatu direlako, biktimaren beraren ekimenez edo ez. Nolanahi ere, zifrek agerian uzten dute **adina faktore bereizgarria dela zerbitzuak eskuratzeko, eta urtez urte irauten duela.**

Jaioterria

Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimen % 51,9 EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak dira, 1.004 emakume guztira. % 48,1 atzerriko herrialdeetan jaio dira (930 emakume).

Aurreko urtearen aldean, bi talde horiek gora egin dute, bi taldeetan hazkundearen intentsitatea bera ez bada ere (lehen taldeak % 3,4 egin du gora, eta bigarrenak, % 16,4).

Aztertutako aldian aurrera egin ahala, murriztu egin da bi taldeei dagozkien proportzioen arteko aldea.



(*) 2004ko datuak biktimizazioei dagozkie, urte horretarako ez baitago biktimen daturik. 2013ko eta 2022ko datuak biktimei dagozkie.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.


Atzeritar jatorriko emakumeen datuak xehatuta, ohikoa denez, gehienak Latinoamerikakoak dira (% 76). Jarraian, Afrikako (% 11,1) eta Europako (% 9,7) herrialdeetako emakumeak daude; gainerakoak Asiakoak dira (% 3,7).

B. Erasotzaileak⁵

2023an, bikotekidearekiko edo bikotekide ohiarekiko indarkeria erabili duten erasotzaileak 1.949 dira, aurreko urtean baino **% 10 gehiago** (1.771 erasotzaile 2022an).

Aurreko ekitaldietan bezala, kasu gehienetan erasotzaileak erdiko adin-tarteetakoak dira. 31-50 urte bitartekoak dira % 59 (1.142 gizon): % 30, 31-40 urte bitartekoak; eta % 29, 41-50 urte bitartekoak.

Aurreko urtearekin alderatuta, biktimekin gertatzen denaren antzera, erdiko adin-tarte horietan erregistratu da kasuen hazkundera, muturretako adin-tarteei (20 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak) dagozkien kopuruek behera egin baitute.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

⁵ Gizonezkoak emakumeen aurkako indarkeria-ekintzen egile diren aldiei egiten zaie erreferentzia.

2.2.2. Udalerriei dagozkien datuak

Udalerri mailako biktimizazioen datuak baloratzean, txosten honen aurreko edizio eta ataletan adierazi den bezala, kontuan hartu behar da datu horiek —zerbitzu publikoen erregistroetatik datoz— ez dutela zerikusirik fenomenoak udalerrian intentsitate handiagoa edo txikiagoa izatearekin, baizik eta **sistemaren erantzuteko gaitasunarekin, biztanleek baliabideaz egiten duten erabilerarekin eta polizia-jarduerarekin berarekin.**

Datu horiek irakurtzean, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan, hala nola baliabidearen **eskuragarritasuna**, biztanleek —biktimek, hurbileko pertsonak eta abarrek— **zerbitzu publikoak erabiltzeko** duten prestasuna (faktore hori, aldi berean, baliabidearen existentziaren ezagutzarekin, biztanleriak jasotzen duen hurbiltasunarekin, zerbitzuarekiko sentitzen duten konfiantzarekin eta abarrekin lotzen da) edo polizia-agenteen **ofiziozko jarduerarekin**. Faktore horiek guztiek biktimizazioen bolumena eta horiek udalerri jakin batean erregistratzeko probabilitate handiagoa edo txikiagoa azaltzen laguntzen dute. Tasek emandako informazioa osatze aldera, interesgarria litzateke jakitea, besteak beste, biktimizazioen zer proportzio sortzen den poliziaren beraren jarduketaren ondorioz, eta biktimaren, hurbileko pertsonen eta abarren ekimen zuzenaren ondorioz.


A. 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak

Bizkaian tamaina handiena duten hamar udalerriek Lurraldeko biztanleriaren % 67,7 hartzen dute. Bolumen horrekin bat etorritz, 2023an Lurraldean bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatik gertatzen diren biktimizazioen % 70,5 erregistratu dira, **1.811 gertakari** guztira.

Ohikoa denez, bat-etortze hori lausotu egiten da udal-errealitatera hurbiltzean; izan ere, maila partikularrean, biktimizazioen banaketa ez dator bat kasu guztietan biztanleriaren bolumenarekin, lehen azaldutako arrazoiak direla eta.

Erregistro partikularrak 10.000 emakumeko tasetara eramanda, argi eta garbi ikusten dira udalerrien arteko desberdintasunak; ez da multzo homogenea, eta, batzuetan, udalerri batzuetako tasak beste batzuetakoak halako bi edo gehiago dira.

2.14 grafikoa. Emakumeen biktimizazio-tasa, bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeria dela eta. Udalerrriak > 25.000 biztanle. BLH. 2023



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

2.4 taula. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioen adierazle nagusiak, 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan. BLH. 2023


Udalerrria	Emakumeen biztanleria	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen tasa
Barakaldo	52.204	8,7	309	12,0	59,2
Basauri	20.854	3,5	85	3,3	40,8
Bilbo	182.105	30,5	756	29,5	41,5
Durango	15.251	2,6	55	2,1	36,1
Galdakao	14.918	2,5	50	1,9	33,5
Getxo	40.502	6,8	110	4,3	27,2
Leioa	16.634	2,8	57	2,2	34,3
Portugalete	23.320	3,9	117	4,6	50,2
Santurtzi	23.983	4,0	150	5,8	62,5
Sestao	14.421	2,4	122	4,8	84,6
Guztira < 25.000 bizt.	404.192	67,7	1.811	70,5	44,8
BLHan, guztira	596.769	-	2.567*	-	43,0

(*) 2023an bikote / bikotekide ohiaren indarkeriagatiko 6 biktimizazio erregistratu dira udalerrri bat esleituta ez dutenak (5 izan ziren 2022an).

Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzen da.

Iturria: Guk egina, EINK eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

Grafiko honek biktimizazio kopuruaren eta 10.000 emakumeko sortzen den tasaren arteko erlazioa erakusten du; haren banaketa desberdinean kontuan hartu beharko da atalaren hasieran adierazitako faktoreen konbinazioaren eragina.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Aurreko urtearekin alderatuta, hamar udalerri horien guztizko erregistroa **% 10,4 handitu da** (1.640 biktimizazio 2022an).











Udalerri bakoitzaren xehetasunetara joanez gero, normalean datuen arabera ezin da taldean joera unibokorik aipatu urteko erregistroak alderatzeko orduan, desberdintasun handia izaten baita. 2023an, talde horretako udalerri gehienek aurreko urtean baino zifra handiagoak izan dituzte banaka, eta soilik hiru udalerrik egin dute behera: Getxok (-% 26,2), Leioak (-% 19,7) eta Durangok (-% 8,3). Gainerakoetan, aldakuntza desberdina da; Basaurirena eta Barakaldorena da nabarmenena, % 29 eta % 27 egin baitute gora, hurrenez hurren.

Grafiko honek biktimizazio-tasak udalerri horietako bakoitzean azken 18 urteetan izandako bilakaera adierazten du:

- Tasen aldakuntzari dagokionez, Bilbok eta Getxok nahiko joera erregularra izan dute aztertutako aldian, urteko indizeetan intentsitate gutxiko aldaketekin (Getxoren kasuan, 2022an baino ez zen aldatu egoera). Gainerako udalerriek mugimendu irregularrak izan dituzte aldi horretan.
- Noranzkoari dagokionez, tasa nahiko egonkor mantendu da Barakaldon eta Getxon; Basaurin, berriz, pixka bat jaitsi da; eta gainerakoetan goranzko joera izan du, intentsitate desberdinarekin bada ere: Leioak, Portugaletek, Santurtzik eta Sestaok dute kurbarik nabarmenena.

2.16 grafikoa. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriatik emakumeen biktimizazio-tasak. > 25.000 bizt. udalerriak. BLH.

2006-2023



B. Mankomunitateak


Bizkaian bederatzi udalerri-elkarte daude gizarte-zerbitzuak emateko —esklusiboki edo ez—. Mankomunitate horietako udalerri gehienak 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak dira, eta, guztira, Bizkaiko emakumeen % 21,4 bizi da haietan.

2023an, mankomunitate horietan bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatiko **423 biktimizazio** erregistratu dira guztira, hau da, Bizkaian erregistratutakoen % 16,5.

Biktimizazioen bolumen horrek 10.000 emakumeko 33,2 biktimizazioko tasa ematen du, lurralde osokoa baino ia hamar puntu txikiagoa (43,0).

Banaka, **mankomunitate gehienek Bizkaia osokoa baino tasa txikiagoa dute**. Txorierri eta Arratia bakarrik daude gainetik, 48,7ko eta 62,9ko balioekin, hurrenez hurren:

- Txorierriko Mankomunitatean, udalerri guztiek erregistratzen dute biktimizazioen bat; ia bi heren Derioren (% 46) eta Zamudioren (% 19) artean.
- Arratian ere udalerri guztietan erregistratu dira gertakariak; Igorrek (% 38) eta Lemoak (% 18) hartzen dituzte erdia baino gehiago.



Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatu da.

Iturria: Guk egin, EInk eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

2.5 taula. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioen adierazle nagusiak, mankomunitateetan. BLH. 2023

Mankomunitatea	Emakumeen biztanleria	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen tasa
Arratia	7.157	1,2	45	1,8	62,9
Busturialdea	15.028	2,5	31	1,2	20,6
Enkarterri	17.752	3,0	69	2,7	38,9
Lea-Artibai	11.722	2,0	31	1,2	26,4
Lea Ibarra	1.028	0,2	3	0,1	29,2
Durangaldea	30.290	5,1	104	4,1	34,3
Mungialde	12.568	2,1	44	1,7	35,0
Txorierri	11.084	1,9	54	2,1	48,7
Uribe Kosta	20.802	3,5	42	1,6	20,2
Guztira	127.421	21,4	423	16,5	33,2
BLHan, guztira	596.769	-	2.567*	-	43,0


(*) 2023an bikote / bikotekide ohiaren indarkeriagatiko 6 biktimizazio erregistratu dira udalerrri bat esleituta ez dutenak (5 izan ziren 2022an).

Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzen da.

Iturria: Guk egina, EINK eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta.

Aurreko urtearekin alderatuta, mankomunitate guztien biktimizazioen bolumenak % **4,2 egin du gora** (423 kasu, 2022ko 406 kasuen aldean).

Ikuspegia zabaltzen badugu 2005az geroztiko aldia barnean hartuz, biktimizio-tasaren bilakaerari buruzko grafiko honek erakusten digu entitate horietan tasa hori **beti egon dela lurraldeko tasaren azpitik**.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Oro har, mankomunitateetako biktimizazioen erregistroa txikiagoa izateak lotura izan dezake hura osatzen duten udalerri gehienen ezaugarriekin, tamaina txikikoak baitira, eta inhibitzaile gisa joka dezakete egoera horiek publiko egiteko orduan, hala nola komunitate horietan anonimotasun-maila txikiagoa izatea —disuasio-faktore bat da, bai biktimen kasuan, bai hurbileko pertsonen kasuan—; horrez gain, oro har, herri horietako biztanleria zaharragoa izan ohi da, eta gogoratu behar da Bizkaian erregistratutako biktimen adin-kurbak adin gazteenen presentzia handia erakusten duela.

Mankomunitate bakoitzean adierazle hori aztertuz gero, agerian geratzen dira haien arteko aldeak (hurrengo grafikoa):


- Tasen aldakuntzari dagokionez, Lea-Artibaik izan du joerarik erregularrena aztertutako aldian, aldakuntza arinenak izan baititu; gainerako mankomunitateek irregulartasun handiagoa izan dute mugimenduan.
- Noranzkoari dagokionez, mankomunitate guztiek joera horizontala (Mungialde eta Uribe Kosta) edo goranzkoa (gainerako mankomunitateak) dute. Azken horien artean, Enkarterriko Mankomunitateak bost urtez jarraian izan du igoera.

Datuek jasotako aldian, Txorierriko Mankomunitateak beheranzko joera zuen 2021era arte. Urte horretan tasak gora egin zuen eta leundu egin zen noranzkoa, eta 2022ko eta 2023ko datuek datu hori berresten dute. Beraz, grafikoan ikus daitekeenez, gaur egungo joera goranzkoa da.




2.19 grafikoa. Bikotekide/bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazio tasa udalerrien mankomunitateetan. BLH. 2005-2023


ARRATIA




BUSTURIALDEA




ENCARTACIONES




LEA-ARTIBAI




LEA IBARRA




MERINDAD DE DURANGO




MUNGIALDE



TXORIERRI



URIBE KOSTA



C. Beste udalerri batzuk

Urtero, aurreko bi sailkapenetatik kanpo dauden Lurraldeko beste herri batzuek —hau da, 25.000 biztanletik beherako herriak eta mankomunitateetakoak ez direnak— aipatzeko moduko emaitzak izaten dituzte. Talde horretan dago **Erandio**. Erandiok lurraldeko guztizko tasa baino tasa altuagoak izan ditu modu jarraituan: 2023an, bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatiko 75 biktimizazio erregistratu dira han, eta biktimizazio-tasa **59,4koa** da, udalerriko 10.000 emakumeko. Aurten Bermeo ere aipatu behar da: 47 biktimizazio, eta 54,7ko tasa.

2.3. FAMILIA BARRUKO INDARKERIA

Segurtasun Sailak emandako datuen arabera, epigrafe honetan gizonen emakumeen aurka familian eragindako indarkeria baino ez da hartzen kontuan, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik.


2.3.1. Lurraldeko datuak

A. Biktimizazioak eta biktimak

Urtean zehar, Ertzaintzak **613 biktimizazio** erregistratu ditu Bizkaian, senideek emakumeei eragindako indarkeriaren ondorioz. Zifra hori 504 biktimari dagokie guztira, eta **hamar mila emakumeko 10,3 biktimizazioko tasa** du ondorio.

2023an, hildako bat erregistratu zen indarkeria-esparru horretan (Bilbo).

Biktimizazioen bolumena % 7,9 handitu aurreko urtearekin alderatuta, eta, 2020arekin batera, 600 gertakari baino gehiago izan dituen urte bakarra izan da⁶.



***Oharra:** 2009az geroztik (urte hori barne), datuak *erasotzailea gizonetzkoa* den biktimizazioei buruzkoak baino ez dira. Aurreko urteetako datuek erasotzailearen sexua edozein dela ere izandako biktimizazio guztiak hartzen dituzte barnean, eta, beraz, erasotzailea emakumea duten biktimak ere daude zenbatuta. Grafikoan, lerro eten batekin eta kolorea aldatuz markatu da haustura hori. **Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.


⁶ 2020an, familia barruko indarkeriaren 654 gertakari erregistratu ziren, pandemiaren eta horri aurre egiteko aplikatutako neurrien esparruan (beste arreta-zerbitzu batzuetan ere familia barruko indarkeria kasu gehiago antzeman dira).

Erasotzailearekiko harremana

Biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana zein den, familia barruko indarkeria-gertaerak hiru taldetan banatzen dira:

- Alaba adingabea
- Ama
- Gainerako senideak

Ohikoa den bezala, 2023an ere gertakari gehienetan biktima ama (% 45,2) edo erasotzailearen senidea (% 36,4) da. Gainerako kasuetan (% 18,4), alaba adingabea da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Hiru taldeetatik, aurreko urtearekin alderatuta, “Gainerako senideak” taldeko kasuak baino ez dira pixka bat gutxitu.

2.6 taula. Familia barruko indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioen kopurua, egilearekiko harremana kontuan hartuta. BLH. 2022-2023

	2022	2023	Aldakuntzaren %
Alaba adingabea	93	113	21,5
Ama	246	277	12,6
Gainerako senideak	229	223	-2,6
Guztira	568	613	7,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila.

Adina


Indarkeria mota horretan ere, adin-tarte guztietako biktimak erregistratzen dira. Aurreko urteetan bezala, familia barruko indarkeriak maiztasun handiagoak erakusten ditu **adingabeen eta 50 urtetik gorakoen** artean:

- **Biktimen % 28 adingabea da**, 141 haur eta nerabe guztira: 14 urtetik beherako 100 haur (biktima guztien % 20); eta 14 eta 17 urte bitarteko 41 nerabe (% 8).

Kasu gehienetan, aita da erasotzailea (**% 80**).

- **% 37k 51 urte edo gehiago ditu**: 186 emakume guztira. Adin horietan dago maiztasun handieneko beste tartea: **51-64 urte** bitarteko 101 emakume (biktima guztien % 20).

Aurreko urtearekin alderatuta, muturreko adin-tarteetan gora egin dute biktimek: **% 26 dira 14 urtetik beherakoak**; eta % 10,4, 65 urte eta gehiagokoak. Erdiko adin-tarteetan, 21-30 urte bitartekoa da nagusia (% 40).




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Jaioterria

Familia barruko indarkeriaren hamar biktimatik 8-9 EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak izan ohi dira. 2023an, **386 emakume izan dira (% 76,6)**. Bolumen hori aurreko urtekoaren antzekoa da, -% 3ko jaitsiera txiki batekin.

Atzerriko herrialdeetan jaiotako emakumeak 118 dira, hau da, % 23,4; bi kasuetan, **serieko baliorik altuenak** dira. Azken urtearekin alderatuta, % 38,8ko igoera da (85 emakume izan ziren 2022an).

Gehienak Latinoamerikakoak dira (% 60,2); % 21,2 Europako herrialdeetakoak dira, % 12,7 Afrikakoak, eta % 5,9 Asiakoak.




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

B. Erasotzaileak⁷

Ertzaintzaren erregistroen arabera, 2023an **376 erasotzailek** eragin zuten familia barruko indarkeria, aurreko urtean baino % 17,2 gutxiago (2022an 454 izan ziren).

Maiztasun handienak erdiko adin-tarteetan gertatzen dira, eta, bereziki, **41-50 urte bitartekoetan (% 24)**.

Aurreko urtearekin alderatuta, beherakada ia adin-tarte guztietan gertatu da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

⁷ Gizonezkoak emakumeen aurkako indarkeria-ekintzen egile diren aldiei egiten zaie erreferentzia.

2.3.2. Udalerriei dagozkien datuak


2023an, Ertzaintzak familia barruko indarkeria gertaerak erregistratu zituen Bizkaiko 65 udalerrietan (62 izan ziren, 2022an).

Biktimizazioen % 66 (405 guztira) 25.000 biztanletik gorako hamar udalerriei dagokie. Oro har, indarkeria mota horri dagokionez, biktimizazioen ehunekoen banaketa nahiko proportzionala da biztanleriarenarekin alderatuta, nahiz eta batzuetan ezohiko indizeak erregistratzen diren.

2.7 taula. Familia barruko indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioen adierazle nagusiak, 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan. BLH. 2023

Udalerria	Emakumeen biztanleria	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen tasa
Barakaldo	52.204	8,7	62	10,1	11,9
Basauri	20.854	3,5	19	3,1	9,1
Bilbo	182.105	30,5	148	24,1	8,1
Durango	15.251	2,6	5	0,8	3,3
Galdakao	14.918	2,5	19	3,1	12,7
Getxo	40.502	6,8	37	6,0	9,1
Leioa	16.634	2,8	19	3,1	11,4
Portugalete	23.320	3,9	41	6,7	17,6
Santurtzi	23.983	4,0	32	5,2	13,3
Sestao	14.421	2,4	23	3,8	15,9
Guztira	404.192	67,7	405	66,1	10,0
BLHan, guztira	596.769	-	613	-	10,3

Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzen da. Iturria: Guk egina, EInk eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

2.4. SEXU-INDARKERIA

Sexu-askatasunaren aurkako delituetan, Zigor Kodean halakotzat tipifikatutako delituak sartzen dira: sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeak galbidean jartzea, behartutako prostituzioa eta adingabeen pornografia.

Atal honetan aurkezten diren datuak beren familia-eremukoak ez diren gizonezkoek emakumeen aurka eragindako sexu-indarkeriari buruzkoak dira soilik; bikotekidearen/bikotekide ohiaren edo beste senitartekoren baten kargurako sexu-delituengatik biktimizazioak, berriz, haiei egotzitako guztizkoan zenbatzen dira (kapitulu honen aurreko atalak).


2.4.1. Lurraldeko datuak

A. Biktimizazioak eta biktimak

2023an, sexu-askatasunaren aurkako delituengatik **325 biktimizazio** erregistratu ditu Ertzaintzak Bizkaian (emakumezko 320 biktima), aurreko urtean baino % 18,6 gehiago. Biktimizazio kopuru horrek adierazten du biktimizazio-tasa **5,4 biktimizaziokoa** dela hamar mila emakumeko.

2023ko datua indarkeria mota horretan orain arte erregistratutako **gehienezko kopurua** da.

Hurrengo grafikoan, sexu-indarkeriagatik biktimizazioek Bizkaian 2005. urteaz geroztik izan duten bilakaera ikus daiteke. 2017ra arte, urteko erregistroa egonkorra da, oro har 120-170 gertakari erregistratzen baitira urtean. Une horretatik aurrera, urtero gora egin du urtetik urterako aldakuntzak, 2020an izan ezik, salbuespen gisa.




Oharra: 2009az geroztik (urte hori barne), datuak *erasotzailea biktimaren familia-esparrukoa ez den* kasuetako biktimizazioei buruzkoak baino ez dira. Aurreko urteetako datuek sexu-askatasunaren aurkako delitu guztiak hartzen dituzte barnean, biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana edozein dela ere, eta, beraz, bikotekidearen / bikotekide ohiaren eta beste senide batzuen sexu-erasoak ere hartzen dituzte barnean. Grafikoan, lerro eten batekin eta kolorea aldatuz markatu da haustura hori. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Adina

Ertzaintzak erregistratutako sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima gehienak oso adin-tarte gaztean daude, eta adinak gora egin ahala, delitu kopuruak behera egiten du.

Mota horretako delituen bat jasaten duten emakumeen erdiak baino gehiagok (**% 56**) ez dituzte **20 urte baino gehiago**, 172 guztira (2022an, 128 izan ziren).

Horien artean 137 adingabe daude. Zifra horren arabera, sexu-indarkeriaren hamar biktimatik **lau baino gehiago adingabeak dira**.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Aurreko urtearekin alderatuta, sexu-indarkeriaren erregistroa gazteenen artean (20 urtera arte) eta 41-50 adin-tartean igo da Bizkaian. Bereziki nabarmena da adingabeen artean, aurreko urtean baino 44 biktima gehiago izan baitira (% 47ko igoera).

Jaioterria

Indarkeria mota horren ondorioz Ertzaintzak artatutako emakumeen % 70 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak dira (224 emakume), eta % 30 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak (96 emakume), gehienak Latinoamerikakoak (% 74).

Aurreko urtearekin alderatuta, bi taldeek egin dute gora: % 15,5 lehenengo kasuan, eta % 24,7, bigarreanean.

B. Erasotzaileak⁸

2023an 273 erasotzailek eragin zuten sexu-indarkeria, aurreko urtean baino % 14,7 gehiago (2022an, 238 izan ziren).

Ezin da zehatz-mehatz jakin delitu mota horietan erasotzaileen adinaren arabera banaketa; izan ere, kasuen ehuneko handi batean datu hori ezezaguna da. Taula honek eskura dagoen sailkapena jasotzen du:

2.8 taula. Sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko erasotzaileak, adinaren arabera. BLH. 2023.

	Kop.	%
< 14 urte	10	3,7
14-17 urte	23	8,4
18-20 urte	14	5,1
21-30 urte	80	29,3
31-40 urte	37	13,6
41-50 urte	25	9,2
51-64 urte	19	7,0
> 65 urte	20	7,3
Ezezaguna*	45	16,5
Guztira	273	100,0

*Datu ezezaguna

Iturria: Eusko Jaurlaritz. Segurtasun Saila.

⁸ Gizonezkoak emakumeen aurkako indarkeria-ekintzen egile diren aldiei egiten zaie erreferentzia.

2.4.2. Udalerriei dagozkien datuak


2023an, sexu-indarkeriagatik zenbatu diren emakumeen biktimizazioak Bizkaiko 48 udalerrian erregistratu dira (45 udalerrian, 2022an).

Hamarretik sei 25.000 biztanletik gorako udalerrietan gertatzen dira. Multzo honetan, udalerrri guztiek erregistratzen dute gertaeraren bat. Gehienek lurraldeko batez bestekoaren inguruko tasak dituzte. Muturretan, Portugalete, Leioa eta Sestao daude alde batetik, tasa baxuagoekin urrunduta, eta beste aldetik, Basauri, aurreko indizeak altuena izan baitu.

2.9 taula. Sexu-indarkeriagatik emakumeen biktimizazioen adierazle nagusiak, 25.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan. BLH. 2023

Udalerria	Emakumeen biztanleria	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen tasa
Barakaldo	52.204	8,7	23	7,1	4,4
Basauri	20.854	3,5	17	5,2	8,2
Bilbo	182.105	30,5	92	28,3	5,1
Durango	15.251	2,6	10	3,1	6,6
Galdakao	14.918	2,5	8	2,5	5,4
Getxo	40.502	6,8	22	6,8	5,4
Leioa	16.634	2,8	3	0,9	1,8
Portugalete	23.320	3,9	3	0,9	1,3
Santurtzi	23.983	4,0	12	3,7	5,0
Sestao	14.421	2,4	3	0,9	2,1
Guztira	404.192	67,7	193	59,4	4,8
BLHan, guztira	596.769	-	325	-	5,4

Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzen da. Iturria: Guk egin, EInk eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egin.

2.5. BIKTIMIZAZIOEN BANAKETA DENBORA KONTUAN HARTUTA

2.5.1. Eguneko orduen arabera

Ohiko ereduari jarraituz, 2023ko datuek erakusten dute Ertzaintzak erregistratutako **bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeria** kasuak, eguneko orduen arabera banatuz gero, **ugaritu egiten direla pixkanaka** egunak aurrera egin ahala. Goizaldeko orduetakoak dira maiztasun txikiak: goizeko ordu batetik seietara gertatzen da kasuen % 17. Hurrengo ordutartean (goizeko zazpiketatik hamabietara), kasuen % 19,2 erregistratu da, eta eguneko lehen puntu gorena 12:00ak inguruan izan ohi da (129 biktimizazio, % 5). 13:00etatik 18:00etara % 25,3 gertatzen da, 16:00etan areagotu egiten delarik. Ordu horretatik aurrera eta egunaren amaierara arte maila altuari eusten zaio, eta 19:00etatik 23:00etara eguneko biktimizazioen herena inguru kontzentratzen da (% 31). Tarte horretako ordu bakoitzean 100 biktimizazio baino gehiago erregistratu dira, eta tarte horretan dago **eguneko unerik gogorrena, 22:00ak**: 164 biktimizazio; % 6,4.


Grafikoan ikus daitekeenez, 2023ko datuen portaera eta 2022koa ez dira desberdinak. 2023an biktimizazioek egunean zehar izan duten banaketa eta aurreko urteetakoak ildo beretik doaz, eta, beraz, esan daiteke, alde horretatik, patroia nahiko sendoa dela.

Familia barruko indarkeria ere goizaldeko orduetan gertatu da gutxien (biktimizazioen % 8,8, goizeko ordu batetik seietara bitartean). Ohikoa denez, erregistroa goranzkoa da, eta 12:00etan erregistratzen da eguneko lehen puntu gorena (38 biktimizazio; % 6,2). 15:00etan gora egiten du berriro, eta ordu horretan erregistratzen da eguneko beste une goren bat (41 biktimizazio; % 6,7). Hurrengo bi orduak intentsitateari eusten diote, eta 20:00etan berriro areagotzen da, berriro ere 41 biktimizaziora iritsi arte. Jarraian, beheara egiten du egunaren amaierara arte.

Familia barruko indarkeriaren biktimizazioen egunaren barneko banaketak ere antzeko profilak izan ditu urteetan zehar.

Aurten **sexu-askatasunaren aurkako delituekin** lotutako biktimizazioek eguneko ordu kritikoak 24:00etan izan dute, 32 gertakari erregistratu direlarik (% 9,8). Oro har, indarkeria mota horretako gertaerak, beste bi motekin alderatuta, sarriago gertatzen dira goizaldean. 2023an, gertakarien % 22,5 goizeko ordu batetik seietara bitartean erregistratu zen; zehazki, aldi horretan bi une goren daude, 01:00ean (% 5,2) eta 05:00etan (% 4,3). Ordu horretatik aurrera beheara egiten du, eta % 5etik beheara eusten dio 21:00ak arte; ordu horretan, berriro egiten du gora, eta erregistro-maila horri eusten dio, eguna amaitu arteko ordu guztietan.

2.29 grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazioen banaketa (%), indarkeria motaren eta eguneko orduen arabera. BLH. 2022-2023.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

2.5.2. Asteko egunen arabera


Beste urte batzuetan bezala, 2023an **igandea** izan da **bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatiko** biktimizazio-bolumen handieneko asteko eguna: 530 gertakari, hau da, % 20,6. Larunbata eta igandea batera aztertuz gero, biktimizazioen herena baino gehiago (% 36,3) asteburuetan erregistratu dela ikus daiteke. Ostirala ere gehituz gero, ehuneko hori % 50,2ra arte handitzen da; Ertzaintzak astean zehar jakin dituen gertaeren erdia. Beste lanegunetan, gainerako kasuen bolumena nahiko modu proportzionalen banatzen da (% 11-% 14). Asteko egun guztietan da bolumena handiagoa aurreko urtearekin alderatuta.

Familia barruko indarkeriagatiko biktimizazioek banaketa homogeneoa izan dute aste osoan; ez dago egunik nabarmen nagusitzen denik. Aurten, ostiralek eta igandek izan dute maiztasunik handiena (95 biktimizazio). Ostiraletik igandera bitarteko gertaeren ehunekoa % 44ko da.

Sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutako biktimizazioak dira asteko banaketa asimetrikoena dutenak, beste bi indarkeria motekin alderatuta. Argi eta garbi nabarmentzen dira **asteburuetan**: sexu-indarkeriarekin lotutako biktimizazioen % **50,2** larunbatetik (70 biktimizazio; % 22) igandera (93 biktimizazio; % 29) bitartean erregistratzen dira. Hamar biktimizaziotik sei baino gehiago **ostiraletik igandera bitartean** erregistratzen dira (% **65**).

Hiru indarkeria motak kontuan hartzen baditugu, asteburuan izaten da gertakari gehien, batez ere bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatiko eta sexu-indarkeriagatiko erregistroen bolumenagatik.

2.30 grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazioen banaketa (%), indarkeria motaren eta asteko egunen arabera. BLH. 2022-2023.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.



2.5.3. Urteko hilen arabera

Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriari dagokionez, 2023ko datuek hilez hileko banaketa nahiko homogeneoa erakusten dute, eta hilero urteko aldiaren % 7-% 9 biltzen dute.


2023an indarkeria mota horrek erregistratutako hazkundera modu orokortuan islatzen da urtean zehar; izan ere, aurreko urteko datuekin alderatuta, bolumena ez da jaitsi, martxoan (-% 11,5), eta, pixka bat, abuztuan eta urrian (-% 4) izan ezik. Era berean, **hamar hilabetek 200 biktimizaziotik gorako zifrak dituzte**; 2022an, zazpi hilabetek baino ez zuten gainditu kopuru hori, eta aurreko urteetan, noizbehinkako kontua zen.

Familia barruko indarkeriak aurreko urtekoaren oso antzeko igoerak eta jaitsierak izan ditu 2023ko lehen hilabeteetan. Indarkeria mota horretan, hilez hileko banaketa aldakorra da, % 6 eta % 10 artekoa. Aurten, maiatzean eta uztaillean ikusten dira maiztasun handienak: 62 biktimizazio, hau da, egunean 2 gertaera.

Sexu-askatasunaren aurkako delituen banaketa ez da hain erregularra beste bi indarkeria motekin alderatuta. 2023an, hilez hileko tarteak % 4-% 14koa izan da. Ekainean gertatu ziren biktimizaziorik gehienak (48 biktimizazio), eta ondoren, azaroan (36 biktimizazio). Bikotekidearen indarkeriari dagokionean gertatzen den bezala, 2023an indarkeria mota horretan erregistratutako biktimizazioen hazkundera urte osoan zehar banatzen da, eta soilik hiru hilabeteetan (otsaila, uztaila eta urria) izan dira aurreko urtean baino zifra txikiagoak.

Hiru indarkeria motak batera kontuan hartuta, 2023an, **ekaina** izan da biktimizazio kopuru handiena izan duen hilabetea (340 gertakari); sexu-indarkerian maiztasun handiena izan duen aldia izan da, eta beste bi indarkeriei dagokionez ere, hil horretan erregistratu ziren kopuru altuenetako batzuk.

2.31 grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazioen banaketa (%), indarkeria motaren eta urteko hilen arabera. BLH. 2022-2023




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

2.6. BABES-NEURRIAK

2024ko urtarilaren 2ko datuak

Ertzaintzaren etxeko indarkeriaren / genero-indarkeriaren (EI/GI) espedienteetan **emakumezko 2.726 biktime** daude Bizkaian, aurreko ekitaldiko data berean baino % 12,8 gehiago⁹. % 60k Babes Agindua du indarrean.

Arrisku-mailari dagokionez, % 69,4k oinarritzko arrisku-maila du esleituta; laurdenak (% 24,4) arrisku-maila ertaina; % 4,6k arrisku-maila handia, eta % 1,7k arrisku-maila berezia. Azken kategoria hori 46 emakumeri dagokie (47 emakume ziren 2022ko abenduan).



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak emandako datuak oinarri hartuta egina.

Arrisku-maila horiek kontuan hartuta, poliziak zenbait babes-neurri ezartzen ditu. Biktime guztientzako derrigorrezkoen artean, Ertzaintzak babesteko emandako telefono mugikor bat zegoen (Bortxa telefonoa); 2019ko urtarrilean, Bortxa telefonoak emateari utzi zitzaion, eta **Bortxa app-a** eskaintzen hasi ziren, hori izan nahi zuten emakumezko biktimei, bai beren telefonoan bertan, bai, beren telefonoarekin bateraezina izanez gero, app-a aurrez instalatuta duten telefonoak eskainita. 2024ko urtarilaren 2an, 177 emakumek zuten Bortxa aplikaziorako sarbidea, bi bideetako edozeinen bidez (178 ziren 2022ko abenduaren 31n).

Horrez gain, erreferentziazko datan, honako segurtasun-neurri hauek daude aktibatuta:

- Bizkaian 24 emakumek etengabeko zaintza dute beren babeserako, eta eskolta dute esleituta (40 emakume ziren 2022ko abenduaren 31n).
- 38 erasotzailek eta biktimak eskumuturreko lokalizatzailea dute (37 ziren 2022ko abenduaren 31n).

⁹ Aurreko txostenetan, abenduaren 31ko datua hartzen da kontuan.

2.7. ESKATUTAKO BABES-AGINDUAK

2023an, **992 babes-agindu** (BA) eskatu dira Bizkaian, Ertzaintzaren bidez. Iazko kopuruarekin alderatuta, **% 9,7 gehiago** dira, 88 eskaera gehiago erregistratu baitira.

Hau da indarkeria motaren arabera banaketa:

- Eskaera gehienak **egungo bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeria-egoerek eragindakoak dira (**% 88**).

868 dira guztira, serie historikoko **zifrarik altuena**. Bi kategorien arteko banaketa proportzionala da: % 48, bikotekidearengandik babesteko eskatzen dira, eta % 52, bikotekide ohiarengandik babesteko.

- Familia barruko indarkeria-egoerak direla eta, Ertzaintzak BAen **114 eskaera** jaso ditu, aurreko urtean baino % 23 gehiago (93 eskaera izan ziren 2022an).

Kasu honetan ere, serie historikoko zifrarik **altuena** da.

- Azkenik, sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokienez, babes-aginduen 10 eskaera erregistratu dira (zortzi izan ziren 2022an).



ERANSKINAK:

- Datuen taulak.
 - BLHn dauden Emakumeen Aurkako
Indarkeriako Biktimizazioen Mapak.
-



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

1. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimizazioak eta biktimak indarkeria motaren eta lurralde eremuaren arabera. 2022-2023.

1. Biktimizazioak eta biktimak

2. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, arau-hauste motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. 2022-2023.

2. Arau-hauste mota eta egilearekiko harremana

3. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, indarkeria motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

3. Indarkeria mota eta egilearekiko harremana

4. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak kaltegarritasunaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

4. Kaltegarritasuna

5. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimak adinaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

5. Adina

6. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimak jaioterriaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

6. Jaioterria

7. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak hilabetearen arabera. Bizkaia. 2022-2023.

7. Hilabetea

8. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak asteko egunaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

8. Asteko eguna

9. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak orduaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

9. Ordua

10. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak udalerriaren arabera. Bizkaia. 2023.

10. Udalerria

11. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak udalerriaren eta mankomunitatearen arabera. Bizkaia. 2011-2023.

11.1 Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

11.2 Familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)

11.3 Askatasun sexuala

11.4 Guztira



II. Arloa: POLIZIALA

II.B. Erasotzaileen gaineko datuak

12. taula. Emakumeen kontrako indarkeriaren erasotzaileak adinaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

12. Adina

II.C. Adingabeen datuak

13. taula. Familian genero-indarkeriaren biktima diren adingabeak. Bizkaia. 2023

13.1 Lurraldearen arabera

13.2 Sexuaren eta adinaren arabera

II.D. Babes-neurrien gaineko datuak

14. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakume biktimek eskatutako babes aginduak, indarkeria motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

14. Eskatutako babes aginduak, indarkeria mota eta egilearekiko harremana

15. taula. Biktimen babeserako jarduerak. Bizkaia. 2022-2023.

15. Jarduerak



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen eta biktimen gaineko datuak

1. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimizazioak eta biktimak indarkeria motaren eta lurralde eremuaren arabera. 2022-2023.

EAE

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA	EAE					
	BIKTIMIZAZIOAK			EMAKUMEAK		
	22	23	Δ	22	23	Δ
BIKOTEKIDEAK / BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA	4.507	4.818	6,90	3.407	3.659	7,40
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA SALBU)	1.116	1.110	-0,54	952	941	-1,16
ASKATASUN SEXUALA	520	644	23,85	511	635	24,27
GUZTIRA	6.143	6.572	6,98	4.870	5.235	7,49

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Bizkaian

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA	BIZKAIA					
	BIKTIMIZAZIOAK			EMAKUMEAK		
	22	23	Δ	22	23	Δ
BIKOTEKIDEAK / BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA	2.352	2.567	9,14	1.770	1.934	9,27
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA SALBU)	568	613	7,92	483	504	4,35
ASKATASUN SEXUALA	274	325	18,61	271	320	18,08
GUZTIRA	3.194	3.505	9,74	2.524	2.758	9,27

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

Atal honen tauletan bildutako sailkapena, Ertzaintzak egindako ekintzen kalifikazioetara dagokio.

2. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, arau-hauste motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

ARAU-HAUSTE MOTA	BIKTIMA ETA EGILEAREN ARTEKO HARREMANA																				
	BIKOTEA			FAMILIA BARRUKOA										ASKATASUN SEX.					GUZTIRA		
	BIKOTE OHIA			Alaba adingabea			Ama			Gainerako ahaideak			GUZTIRA			Beste harreman bat			GUZTIRA		
	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ
GUZTIRA	2.352	2.567	9,1	93	113	21,5	246	277	12,6	229	223	-2,6	568	613	7,9	274	325	18,6	3.194	3.505	9,7
Hilketa eta bere motak	5	-	-100,0	-	-	-	2	1	-50,0	-	1	-	2	2	-	-	-	-	7	2	-71,4
Hilketa mingarria/erailketa burutua	1	-	-100,0	-	-	-	1	-	-100,0	-	1	-	1	1	-	-	-	-	2	1	-50,0
Hilketa mingarria/erailketa saiakera	4	-	-100,0	-	-	-	1	1	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-	5	1	-80,0
Lesioak	560	637	13,8	29	39	34,5	83	105	26,5	74	85	14,9	186	229	23,1	-	-	-	746	866	16,1
Zuhurtziagabekeriako lesioak	-	-	-	1	-	-100,0	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0	-	-	-	1	-	-100,0
Tratu txarrak familia esparruan	477	560	17,4	25	37	48,0	79	94	19,0	47	57	21,3	151	188	24,5	-	-	-	628	748	19,1
Lesioak	81	76	-6,2	3	2	-33,3	2	10	400,0	24	28	16,7	29	40	37,9	-	-	-	110	116	5,5
Lesiorik gabeko tratu txarrak	2	1	-50,0	-	-	-	2	1	-50,0	3	-	-100,0	5	1	-80,0	-	-	-	7	2	-71,4
Askatasunaren aurkakoak	139	196	41,0	10	9	-10,0	23	21	-8,7	60	42	-30,0	93	72	-22,6	-	1	-	232	269	15,9
Legearen aurkako atxilotuta	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Mehatxuak	52	61	17,3	1	6	500,0	11	12	9,1	38	22	-42,1	50	40	-20,0	-	-	-	102	101	-1,0
Hertsapenak	51	93	82,4	5	1	-80,0	9	8	-11,1	20	15	-25,0	34	24	-29,4	-	1	-	85	118	38,8
Behartutako ezkontza	-	-	-	2	-	-100,0	-	-	-	-	-	-	2	-	-100,0	-	-	-	2	-	-100,0
Jazarpena	36	40	11,1	2	2	-	3	1	-66,7	2	5	150,0	7	8	14,3	-	-	-	43	48	11,6
Tortura eta segurtasunaren aurkakoak	1.072	1.117	4,2	28	41	46,4	105	97	-7,6	39	55	41,0	172	193	12,2	6	11	83,3	1.250	1.321	5,7
Tratu iraingarria	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	2	-	-	-	-	-	2	-
Ohiko tratu txarrak familia-eremuan	1.056	1.096	3,8	27	41	51,9	105	95	-9,5	39	52	33,3	171	188	9,9	-	-	-	1.227	1.284	4,6
Osotasun moralaren aurkako beste arau-haustek: irainak/umiliazioak	16	21	31,3	1	-	-100,0	-	2	-	-	1	-	1	3	200,0	6	11	83,3	23	35	52,2



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

Atal honen tauletan bildutako sailkapena, Ertzaintzak egindako ekintzen kalifikazioetara dagokio.

2. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, arau-hauste motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

ARAU-HAUSTE MOTA	BIKTIMA ETA EGILEAREN ARTEKO HARREMANA																				
	BIKOTEA BIKOTE OHIA			FAMILIA BARRUKOA												ASKATASUN SEX. Beste harreman bat			GUZTIRA		
				Alaba adingabea			Ama			Gainerako ahaideak			GUZTIRA								
	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ
GUZTIRA	2.352	2.567	9,1	93	113	21,5	246	277	12,6	229	223	-2,6	568	613	7,9	274	325	18,6	3.194	3.505	9,7
Intimitatearen aurkakoak, nork bere irudia izateko eskubidearen aurkakoak eta abar.	6	5	-16,7	-	-	-	1	1	-	4	-	-100,0	5	1	-80,0	-	-	-	11	6	-45,5
Bizilekuaren bortxapena, etab.	-	-	-	-	-	-	-	1	-	2	-	-100,0	2	1	-50,0	-	-	-	2	1	-50,0
Intimitatearen aurkako beste batzuk, nork bere irudia izateko eskubidearen aurkakoa, etab.	6	5	-16,7	-	-	-	1	-	-100,0	2	-	-100,0	3	-	-100,0	-	-	-	9	5	-44,4
Sexu-askatasunaren aurkakoak (1)	29	45	55,2	15	7	-53,3	-	-	-	21	24	14,3	36	31	-13,9	268	313	16,8	333	389	16,8
Sexu-erasoa	8	18	125,0	3	5	66,7	-	-	-	2	14	600,0	5	19	280,0	68	207	204,4	81	244	201,2
Sexu-erasoa penetrazioarekin	16	27	68,8	3	2	-33,3	-	-	-	6	10	66,7	9	12	33,3	52	73	40,4	77	112	45,5
Sexu-gehiagakeria	1	-	-100,0	7	-	-100,0	-	-	-	9	-	-100,0	16	-	-100,0	112	-	-100,0	129	-	-100,0
Sexu-gehiagakeria penetrazioarekin	4	-	-100,0	2	-	-100,0	-	-	-	3	-	-100,0	5	-	-100,0	21	-	-100,0	30	-	-100,0
Sexu-jazarpena	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	8	300,0	2	8	300,0
Exhibizionismoa eta probokazio-sexuala	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	9	18	100,0	9	18	100,0
Adingabeen galbiderapena	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0	1	-	-100,0	2	4	100,0	3	4	33,3
Prostituzioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	3	200,0	1	3	200,0
Adingabeen pornografia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0	1	-	-100,0
Ohorearen aurkakoak	1	-	-100,0	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	2	-	-	-	-	1	2	100,0
Kalumniak	1	-	-100,0	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	2	-	-	-	-	1	2	100,0



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

Atal honen tauletan bildutako sailkapena, Ertzaintzak egindako ekintzen kalifikazioetara dagokio.

2. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, arau-hauste motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

ARAU-HAUSTE MOTA	BIKTIMA ETA EGILEAREN ARTEKO HARREMANA																				
	BIKOTEA BIKOTE OHIA			FAMILIA BARRUKOA												ASKATASUN SEX. Beste harreman bat			GUZTIRA		
				Alaba adingabea			Ama			Gainerako ahaideak			GUZTIRA								
	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ
GUZTIRA	2.352	2.567	9,1	93	113	21,5	246	277	12,6	229	223	-2,6	568	613	7,9	274	325	18,6	3.194	3.505	9,7
Familia harremanen aurkakoak	36	48	33,3	7	11	57,1	-	1	-	2	-	-100,0	9	12	33,3	-	-	-	45	60	33,3
Zaintza eginbeharra ez betetzea	4	8	100,0	-	2	-	-	1	-	-	-	-	-	3	-	-	-	-	4	11	175,0
Adingabea bizilekua uztea eragitea/zaintza erregimena hautsi	1	-	-100,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-100,0
Adingabea bahitzea	2	5	150,0	-	3	-	-	-	-	-	-	-	-	3	-	-	-	-	2	8	300,0
Familia abandonatzea	-	6	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	6	-
Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea	29	29	-	3	5	66,7	-	-	-	2	-	-100,0	5	5	-	-	-	-	34	34	-
Adingabea abandonatzea	-	-	-	4	1	-75,0	-	-	-	-	-	-	4	1	-75,0	-	-	-	4	1	-75,0
Justizia administrazioaren aurkakoak	504	519	3,0	4	6	50,0	32	51	59,4	29	14	-51,7	65	71	9,2	-	-	-	569	590	3,7
Segurtasun neurriak, kautela- neurriak, zigorrak eta abar urratzea	504	519	3,0	4	6	50,0	32	51	59,4	29	14	-51,7	65	71	9,2	-	-	-	569	590	3,7
GUZTIRA	2.352	2.567	9,1	93	113	21,5	246	277	12,6	229	223	-2,6	568	613	7,9	274	325	18,6	3.194	3.505	9,7

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

OHARRA:

(1). 2022ko urriaren 7tik aurrera, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoa indarrean sartzean, desagertu egiten dira sexu-abusuak, eta sexu-erasotzat hartzen dira; beraz, egun hori baino lehen gertatutako gertakariak baino ezin dira izan. Beraz, konparaziozko edozein analisis kontuan hartu beharko du aldaketa hori.



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

3. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak, indarkeria motaren eta egilearekiko harremanaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

MOTA / EGILEAREKIKO HARREMANA	URTEA		
	22	23	Δ
BIKOTEKIDEAK / BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA	2.352	2.567	9,14
Ezkontidea	345	343	-0,58
Ezkontide ohia	217	193	-11,06
Neska-laguna / bikotekidea	762	868	13,91
Neska-lagun ohia / bikotekide ohia	949	1.090	14,86
Emaztegaia	31	29	-6,45
Emaztegai ohia	48	44	-8,33
FAMILIA BARRUKO INDARKERIA (BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKOA SALBU)	568	613	7,92
Alaba adingabea	93	113	21,51
Ama	246	277	12,60
Gainerako ahaideak	229	223	-2,62
ASKATASUN SEXUALA	274	325	18,61
Bestelako harremana	274	325	18,61
GUZTIRA	3.194	3.505	9,74

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

4. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak kaltegarritasunaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

Bikoteak / bikote ohiak eragindako indarkeria

KALTEGARRITASUNA	URTEA		
	22	23	Δ
Hilda	1	-	-100,00
Zauri larriak	9	14	55,56
Zauri arinak	554	627	13,18
Kalterik gabe	1.360	1.445	6,25
Ezezaguna	428	481	12,38
GUZTIRA	2.352	2.567	9,14

2022/12/28an Bilbon hila

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Familia barruko indarkeria (bikote / bikote ohiak eragindakoa salbu)

KALTEGARRITASUNA	URTEA		
	22	23	Δ
Hilda	1	1	-
Zauri larriak	6	1	-83,33
Zauri arinak	109	122	11,93
Kalterik gabe	349	355	1,72
Ezezaguna	103	134	30,10
GUZTIRA	568	613	7,92

2022/04/26an Barakaldon eta 2023/06/16an Bilbon hildakoak

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Askatasun sexuala

KALTEGARRITASUNA	URTEA		
	22	23	Δ
Hilda	-	-	-
Zauri larriak	1	-	-100,00
Zauri arinak	33	24	-27,27
Kalterik gabe	171	209	22,22
Ezezaguna	69	92	33,33
GUZTIRA	274	325	18,61

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Guztira

KALTEGARRITASUNA	URTEA		
	22	23	Δ
Hilda	2	1	-50,00
Zauri larriak	16	15	-6,25
Zauri arinak	696	773	11,06
Kalterik gabe	1.880	2.009	6,86
Ezezaguna	600	707	17,83
GUZTIRA	3.194	3.505	9,74

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimen gaineko datuak

5. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimak adinaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

Bikote / bikote ohiak eragindako indarkeria

ADINA	EMAKUMEAK		
	22	23	Δ
14 BAINO GUTXIAGO	1	1	-
14 eta 17 BITARTEAN	36	29	-19,44
18 eta 20 BITARTEAN	85	73	-14,12
21 eta 30 BITARTEAN	434	438	0,92
31 eta 40 BITARTEAN	540	671	24,26
41 eta 50 BITARTEAN	451	480	6,43
51 eta 64 BITARTEAN	168	193	14,88
65 EDO GEHIAGO	54	47	-12,96
EZEZAGUNA	1	2	100,00
GUZTIRA	1.770	1.934	9,27

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Familia barruko indarkeria (bikote / bikote ohiak eragindakoa salbu)

ADINA	EMAKUMEAK		
	22	23	Δ
14 BAINO GUTXIAGO	79	100	26,58
14 eta 17 BITARTEAN	42	41	-2,38
18 eta 20 BITARTEAN	16	14	-12,50
21 eta 30 BITARTEAN	40	56	40,00
31 eta 40 BITARTEAN	31	36	16,13
41 eta 50 BITARTEAN	86	71	-17,44
51 eta 64 BITARTEAN	112	101	-9,82
65 EDO GEHIAGO	77	85	10,39
EZEZAGUNA	-	-	-
GUZTIRA	483	504	4,35

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimen gaineko datuak

5. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimak adinaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

Askatasun sexuala

ADINA	EMAKUMEAK		
	22	23	Δ
14 BAINO GUTXIAGO	41	61	48,78
14 eta 17 BITARTEAN	52	76	46,15
18 eta 20 BITARTEAN	35	42	20,00
21 eta 30 BITARTEAN	74	66	-10,81
31 eta 40 BITARTEAN	35	30	-14,29
41 eta 50 BITARTEAN	16	28	75,00
51 eta 64 BITARTEAN	14	15	7,14
65 EDO GEHIAGO	3	2	-33,33
EZEZAGUNA	1	-	-100,00
GUZTIRA	271	320	18,08

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Guztira

ADINA	EMAKUMEAK		
	22	23	Δ
14 BAINO GUTXIAGO	121	162	33,88
14 eta 17 BITARTEAN	130	146	12,31
18 eta 20 BITARTEAN	136	129	-5,15
21 eta 30 BITARTEAN	548	560	2,19
31 eta 40 BITARTEAN	606	737	21,62
41 eta 50 BITARTEAN	553	579	4,70
51 eta 64 BITARTEAN	294	309	5,10
65 EDO GEHIAGO	134	134	-
EZEZAGUNA	2	2	-
GUZTIRA	2.524	2.758	9,27

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimen gaineko datuak

Atal honetako taulan bildutako "Jaioterrria" aldagaiaren sailkapena, Segurtasun Sailaren irizpideekin bat dator.

6. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko biktimak jaioterriaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

JAIOTERRIA	BIKTIMA ETA EGILEAREN ARTEKO HARREMANA											
	BIKOTE/BIKOTE OHIA			FAMILIA BARRUKOA			ASKATASUN SEXUALA			GUZTIRA		
	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ
EAE	804	820	2,0	312	308	-1,3	159	194	22,0	1.275	1.322	3,7
ARABA	12	10	-16,7	3	3	-	2	5	150,0	17	18	5,9
BIZKAIA	773	784	1,4	303	300	-1,0	154	182	18,2	1.230	1.266	2,9
GIPUZKOA	19	26	36,8	6	5	-16,7	3	7	133,3	28	38	35,7
BESTE AAEE	167	184	10,2	86	78	-9,3	35	30	-14,3	288	292	1,4
EAE + BESTE AAEE	971	1.004	3,4	398	386	-3,0	194	224	15,5	1.563	1.614	3,3
ATZERRIA	799	930	16,4	85	118	38,8	77	96	24,7	961	1.144	19,0
EUROPA	76	90	18,4	14	25	78,6	12	11	-8,3	102	126	23,5
EB 27	62	72	16,1	8	24	200,0	9	4	-55,6	79	100	27
GAINONTZEKO EUROPA	14	18	28,6	6	1	-83,3	3	7	133,3	23	26	13,0
AFRIKA	101	103	2,0	11	15	36,4	6	11	83,3	118	129	9,3
MAGREB	69	78	13,0	5	15	200,0	4	5	25,0	78	98	26
GAINONTZEKO AFRIKA	32	25	-21,9	6	-	-100,0	2	6	200,0	40	31	-22,5
AMERIKA	597	703	17,8	56	71	26,8	55	71	29,1	708	845	19,4
LATINOAMERIKA	597	703	17,8	53	70	32,1	55	71	29,1	705	844	20
AEB ETA KANADA	-	-	-	3	1	-66,7	-	-	-	3	1	-66,7
ASIA	25	34	36,0	4,0	7,0	75,0	4	3	-25,0	33	44	33,3
OZEANIA	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
ATZERRIA ZEHAZTU GABE	13	18	38,5	2	4	100,0	2	2	-	17	24	41,2
GUZTIRA	1.770	1.934	9,3	483	504	4,3	271	320	18,1	2.524	2.758	9,3

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

7. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak hilabetearen arabera. Bizkaia. 2022-2023.

Bikote / bikote ohiak eragindako indarkeria

HILABETEA	URTEA		
	22	23	Δ
URTARRILA	158	204	29,11
OTSAILA	181	180	-0,55
MARTXOA	209	185	-11,48
APIRILA	156	208	33,33
MAIATZA	186	221	18,82
EKAINA	206	237	15,05
UZTAILA	211	242	14,69
ABUZTUA	210	201	-4,29
IRAILA	207	231	11,59
URRIA	224	213	-4,91
AZAROA	195	216	10,77
ABENDUA	209	229	9,57
GUZTIRA	2.352	2.567	9,14

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Familia barruko indarkeria (bikote/ bikote ohiak eragindakoa salbu)

HILABETEA	URTEA		
	22	23	Δ
URTARRILA	46	43	-6,52
OTSAILA	35	35	-
MARTXOA	49	52	6,12
APIRILA	39	39	-
MAIATZA	46	62	34,78
EKAINA	59	55	-6,78
UZTAILA	63	62	-1,59
ABUZTUA	44	56	27,27
IRAILA	61	57	-6,56
URRIA	46	56	21,74
AZAROA	46	47	2,17
ABENDUA	34	49	44,12
GUZTIRA	568	613	7,92

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

7. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak hilabetearen arabera. Bizkaia. 2022-2023.

Askatasun sexuala

HILABETEA	URTEA		
	22	23	Δ
URTARRILA	14	17	21,43
OTSAILA	22	15	-31,82
MARTXOA	24	32	33,33
APIRILA	18	24	33,33
MAIATZA	17	30	76,47
EKAINA	33	48	45,45
UZTAILA	30	23	-23,33
ABUZTUA	23	26	13,04
IRAILA	28	30	7,14
URRIA	24	21	-12,50
AZAROA	19	36	89,47
ABENDUA	22	23	4,55
GUZTIRA	274	325	18,61

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Guztira

HILABETEA	URTEA		
	22	23	Δ
URTARRILA	218	264	21,10
OTSAILA	238	230	-3,36
MARTXOA	282	269	-4,61
APIRILA	213	271	27,23
MAIATZA	249	313	25,70
EKAINA	298	340	14,09
UZTAILA	304	327	7,57
ABUZTUA	277	283	2,17
IRAILA	296	318	7,43
URRIA	294	290	-1,36
AZAROA	260	299	15,00
ABENDUA	265	301	13,58
GUZTIRA	3.194	3.505	9,74

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

8. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak asteko egunaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

Bikote / bikote ohiak eragindako indarkeria

ASTEKO EGUNA	URTEA		
	22	23	Δ
ASTELEHENA	330	370	12,12
ASTEARTEA	287	289	0,70
ASTEAZKENA	298	323	8,39
OSTEGUNA	296	297	0,34
OSTIRALA	306	357	16,67
LARUNBATA	367	401	9,26
IGANDEA	468	530	13,25
GUZTIRA	2.352	2.567	9,14

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Familia barruko indarkeria (bikote/ bikote ohiak eragindakoa salbu)

ASTEKO EGUNA	URTEA		
	22	23	Δ
ASTELEHENA	80	88	10,00
ASTEARTEA	93	85	-8,60
ASTEAZKENA	81	89	9,88
OSTEGUNA	72	84	16,67
OSTIRALA	84	95	13,10
LARUNBATA	81	77	-4,94
IGANDEA	77	95	23,38
GUZTIRA	568	613	7,92

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

8. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak asteko egunaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

Askatasun sexuala

ASTEKO EGUNA	URTEA		
	22	23	Δ
ASTELEHENA	37	29	-21,62
ASTEARTEA	24	32	33,33
ASTEAZKENA	23	18	-21,74
OSTEGUNA	29	36	24,14
OSTIRALA	28	47	67,86
LARUNBATA	63	70	11,11
IGANDEA	70	93	32,86
GUZTIRA	274	325	18,61

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

Guztira

ASTEKO EGUNA	URTEA		
	22	23	Δ
ASTELEHENA	447	487	8,95
ASTEARTEA	404	406	0,50
ASTEAZKENA	402	430	6,97
OSTEGUNA	397	417	5,04
OSTIRALA	418	499	19,38
LARUNBATA	511	548	7,24
IGANDEA	615	718	16,75
GUZTIRA	3.194	3.505	9,74

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

9. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak orduaren arabera. Bizkaia. 2022-2023.

ORDUA	EGILEAREKIKO HARREMANA											
	BIKOTEA/BIKOTE OHIA			FAMILIA BARRUKOA			ASKATASUN SEXUALA			GUZTIRA		
	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ	22	23	Δ
00	103	128	24,27	10	22	120,00	6	32	433,33	119	182	52,94
01	103	107	3,88	19	19	-	9	17	88,89	131	143	9,16
02	90	78	-13,33	5	10	100,00	9	8	-11,11	104	96	-7,69
03	85	87	2,35	5	11	120,00	13	12	-7,69	103	110	6,80
04	70	77	10,00	8	5	-37,50	17	12	-29,41	95	94	-1,05
05	52	47	-9,62	4	7	75,00	8	14	75,00	64	68	6,25
06	52	49	-5,77	7	2	-71,43	20	10	-50,00	79	61	-22,78
07	42	49	16,67	5	9	80,00	7	9	28,57	54	67	24,07
08	57	64	12,28	15	15	-	9	7	-22,22	81	86	6,17
09	60	73	21,67	23	19	-17,39	9	10	11,11	92	102	10,87
10	101	90	-10,89	26	29	11,54	8	6	-25,00	135	125	-7,41
11	70	88	25,71	23	30	30,43	9	8	-11,11	102	126	23,53
12	143	129	-9,79	44	38	-13,64	9	10	11,11	196	177	-9,69
13	79	80	1,27	24	30	25,00	10	12	20,00	113	122	7,96
14	86	107	24,42	41	28	-31,71	3	5	66,67	130	140	7,69
15	92	114	23,91	37	41	10,81	10	7	-30,00	139	162	16,55
16	89	124	39,33	32	39	21,88	13	12	-7,69	134	175	30,60
17	92	115	25,00	25	40	60,00	11	16	45,45	128	171	33,59
18	115	109	-5,22	34	25	-26,47	8	15	87,50	157	149	-5,10
19	112	109	-2,68	20	32	60,00	14	13	-7,14	146	154	5,48
20	128	137	7,03	31	41	32,26	10	9	-10,00	169	187	10,65
21	136	137	0,74	33	38	15,15	7	17	142,86	176	192	9,09
22	122	164	34,43	30	25	-16,67	13	16	23,08	165	205	24,24
23	128	124	-3,13	23	19	-17,39	11	16	45,45	162	159	-1,85
EZEZAGUNA	145	181	24,83	44	39	-11,36	31	32	3,23	220	252	14,55
GUZTIRA	2.352	2.567	9,14	568	613	7,92	274	325	18,61	3.194	3.505	9,74

Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza



II. Arloa: POLIZIALA

II.A. Biktimizazioen gaineko datuak

10. taula. Emakumeen kontrako indarkeriagatiko emakumeen biktimizazioak udalerriaren arabera. Bizkaia. 2023.

UDALERRIAK (*)	EMAKUME BIZT. 2023	EGILEA ETA BIKTIMAREN ARTEKO HARREMANA				
		BIKOTE/ BIKOTE OHIA	FAMILIA BARRUKOA	ASKATA- SUN SEXUALA	GUZTIRA	
					BIKTIMIZA- ZIOAK	x10.000 EMAKUME TASA
> 25.000 BIZTANLEKO UDALERRIAK						
BARAKALDO	52.204	309	62	23	394	75,47
BASAURI	20.854	85	19	17	121	58,02
BILBAO	182.105	756	148	92	996	54,69
DURANGO	15.251	55	5	10	70	45,90
GALDAKAO	14.918	50	19	8	77	51,62
GETXO	40.502	110	37	22	169	41,73
LEIOA	16.634	57	19	3	79	47,49
PORTUGALETE	23.320	117	41	3	161	69,04
SANTURTZI	23.983	150	32	12	194	80,89
SESTAO	14.421	122	23	3	148	102,63
< 25.000 BIZTANLEKO UDALERRIAK						
ABADIÑO	3.844	8	2	2	12	31,22
ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA	4.728	26	4	25	55	116,33
ALONSOTEGI	1.489	3	1	-	4	26,86
AMOREBIETA-ETXANO	9.993	33	11	2	46	46,03
AMOROTO	186	-	-	-	-	-
ARANTZAZU	191	3	-	-	3	157,07
AREATZA	642	4	-	1	5	77,88
ARRANKUDIAGA-ZOLLO	497	2	-	-	2	40,24
ARRATZU	227	2	1	-	1	44,05
ARRIGORRIAGA	6.085	30	2	4	36	59,16
ARTEA	371	3	-	-	3	80,86
ARTZENTALES	345	2	-	-	2	57,97
ATXONDO	679	2	1	-	3	44,18
AULESTI	330	-	-	-	-	-
BAKIO	1.414	7	2	1	10	70,72
